Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala
Boletín Oficial de Gipuzkoa

2024ko ekainaren 5a, asteazkena — 108 — Miércoles, a 5 de junio de 2024



## TOLOSAKO UDALA

*Iragarkia*

Udalbatzak, 2024ko martxoaren 27an egindako ohiko Osoko Bilkuran, hasierako onespena eman zion Tolosako Udaleko Euskararen Aholku Kontseilua arautzeko Erregelamenduari.

Toki Araubidearen Oinarriak Arautzen dituen 7/1985 Legearen 49.b artikuluak xedatzen duena betez, iragarkia Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu zen, baita Udalaren webgunean eta udaletxeko iragarki-taulan ere, eta informazio publikorako ikusgai egon da 30 egun baliodunez. Ez da batere erreklamaziorik izan.

Hortaz, behin betiko onartutzat jo da Tolosako Udaleko Euskararen Aholku Kontseilua arautzeko Erregelamendua.

Tolosa, 2024ko maiatzaren 31.—Angel Martinez de Rituerto Arregui, alkatea. (4043)

*Tolosako Udaleko Euskararen Aholku Kontseilua arautzeko Erregelamendua.*

AURREKARIAK

Tolosako Udalbatzak 1990eko ekainaren 29an onartu zuen Tolosako Udalean eta Udalerrian euskararen erabilera normalizatzeko Udal Ordenantza, eta 35. artikuluak ezartzen du hizkuntza-politikari buruzko koordinazio-organo bat sortuko dela udalerrian, «euskara normalizatzeko lanetan dihardutenen eztabaidarako elkargune izango dena».

Bide beretik, Tolosako Udalbatzak 2021eko urtarrilaren 28an onartu zuen Tolosako Udaleko Euskararen Aholku Kontseilua arautzeko erregelamendua. Organo aholku-emailea eta eztabaidatzailea da Kontseilua, erregelamenduaren lehen artikuluak zehazten duenez. Finean, Kontseiluak hartu zuen Euskara Batzordeak urteetan edukitako funtzioa.

Horri dagokionez, kontuan hartu behar da zer xedatzen duen 7/1985 Legeak, apirilaren 2koak, Toki-araubidearen oinarriak arautzen dituenak: udalak herritarren partaidetza bultzatu behar duela herriko kontuetan. Udalbatzak 2022ko maiatzaren 26an onartu zuen Tolosako Udaleko Gobernantza, Partaidetza eta Gardentasunari buruzko Ordenantza. Herritarren partaidetzarako organoak arautzen dira 35. artikuluan, eta, besteak beste, zehazten da zer izaera duten: «Udalaren eta herritar norbanakoen zein antolatutakoen arteko topagune egonkor eta iraunkorrak dira eta nolabaiteko erregulartasunez biltzen dira, udal jarduerei, zerbitzu programei, planei edo politikei buruzko iritzi eta proposamenen gainean dialogatu, debatitu edo eztabaidatzeko. Organo hauek kontsultiboak dira.»

Hizkuntza-politikaren esparruan, 179/2019 Dekretuak, azaroaren 19koak, Euskadiko toki-erakundeetan hizkuntza ofizialen erabilera instituzionala eta administratiboa normalizatzeari buruzkoak, 59. artikuluan ezartzen du toki-erakundeek nola landu behar duten hizkuntza-plangintza; besteak beste, «eragile eta kolektibo inplikatuekin hitzartuta» egin behar direla.

## AYUNTAMIENTO DE TOLOSA

*Anuncio*

El Pleno del Ayuntamiento, en sesión ordinaria celebrada el 27 de marzo de 2024, aprobó inicialmente el Reglamento regulador del Consejo Asesor de Euskera del Ayuntamiento de Tolosa.

En cumplimiento de lo dispuesto en el artículo 49.b de la Ley 7/1985, Reguladora de las Bases del Régimen Local, el anuncio fue publicado en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa, en la página web del Ayuntamiento y en el tablón de anuncios del Ayuntamiento y expuesto al público durante 30 días hábiles. No ha habido ninguna reclamación.

En consecuencia, se da por aprobado definitivamente el Reglamento regulador del Consejo Asesor de Euskera del Ayuntamiento de Tolosa.

Tolosa, a 31 de mayo de 2024.—El alcalde, Angel Martinez de Rituerto Arregui. (4043)

*Reglamento regulador del Consejo Asesor de Euskera del Ayuntamiento de Tolosa.*

ANTECEDENTES

El Pleno del Ayuntamiento de Tolosa, en sesión celebrada el 29 de junio de 1990, aprobó la Ordenanza Municipal para la normalización del uso del euskera en el Ayuntamiento y Municipio de Tolosa, y el artículo 35 establece la creación de un órgano de coordinación sobre política lingüística en el municipio, como «punto de encuentro para el debate de quienes trabajan en la normalización del euskera».

Asimismo, el Pleno del Ayuntamiento de Tolosa aprobó el 28 de enero de 2021 el Reglamento regulador del Consejo Asesor del Euskera del Ayuntamiento de Tolosa. El Consejo es un órgano consultivo y deliberante, según establece el artículo primero del Reglamento. En definitiva, el Consejo asumió la función que la Comisión de Euskera cumplió durante años.

A este respecto, hay que tener en cuenta que la Ley 7/1985, de 2 de abril, reguladora de las Bases del Régimen Local establece que el Ayuntamiento debe promover la participación ciudadana en las cuentas públicas. El Pleno del Ayuntamiento aprobó el 26 de mayo de 2022 la Ordenanza de Gobernanza, Participación y Transparencia del Ayuntamiento de Tolosa. En el artículo 35 se regulan los órganos de participación ciudadana, en los que se especifica, entre otros aspectos, su carácter: «Son puntos de encuentro estable y permanente entre el Ayuntamiento y la ciudadanía, individual y organizada, que se reúnen con cierta regularidad para dialogar, debatir o debatir sobre opiniones y propuestas sobre actividades municipales, programas de servicios, planes o políticas. Estos órganos son consultivos.»

En el ámbito de la política lingüística, el artículo 59 del Decreto 179/2019, de 19 de noviembre, sobre normalización del uso institucional y administrativo de las lenguas oficiales en las Entidades Locales del País Vasco, establece la forma en que las Entidades Locales deben elaborar la planificación lingüística, entre otras cosas, «mediante acuerdo con los agentes y colectivos implicados.»

EK\CV GAO-I-2024-04043

Xede horiekin, Tolosan hizkuntza-politika bateratua lantzeko helburuz, eta partehartzearen, sinplifikazioaren eta efikaziaren printzipioak oinarritzat harturik, Tolosako Udalak berritu egin du Tolosako Udaleko Euskararen Aholku Kontseilua arautzen duen erregelamendua.

*1. artikulua. Eratzea.*

Tolosako Udalak aitortzen du hizkuntza-eskubideak oinarrizkoak direla, eta, ondorioz, botere publikoek herritar guztiei bermatu beharrekoak. Era berean, uste du gobernantza onak bete beharreko printzipioetako bat dela herritarrek hizkuntza-politiken sorreran parte hartzea, baita proiektuak eta programak planifikatzen eta ebaluatzen ere. Horrenbestez, hizkuntza-normalizazioak Tolosarentzat duen garrantzi estrategikoa dela-eta eratu nahi da Tolosako Udaleko Euskararen Aholku Kontseilua.

*2. artikulua. Euskararen Aholku Kontseiluaren izaera.*

Tolosako Udaleko Euskararen Aholku Kontseilua kide anitzeko organo aholku-emailea eta eztabaidatzailea da, Tolosako Udalari Herritarrak Lan Esparruko Informazio Batzorde Iraunkorraren bidez atxikia.

Kontseilua harreman-organoa da, non elkartuko diren Tolosan hizkuntza-normalizazioan diharduten taldeetako, elkarteetako eta erakunde publiko nahiz pribatuetako ordezkariak.

Kontseiluaren esku-hartzea adieraziko da bere eginkizuntzat hartutako gaien azterketan. Gai horiei buruz egindako proposamenak edo alternatibak ez dira Udalarentzat lotesleak izango. Kontseiluak Udalari egindako proposamenak edo alternatibak ez badira kontuan hartuak behin betiko onespenean, horren zergatiak adierazita erantzungo zaio Kontseiluari.

Kontseiluak Udalarekin izan beharreko harreman guztiak Herritarrak Lan Esparruko Informazio Batzorde Iraunkorraren bidez bideratuko ditu.

Funtzionamendu egokia bermatzeko, Euskara eta Hezkuntza Sailaren laguntza teknikoa izango du Kontseiluak.

*3. artikulua. Euskararen Aholku Kontseiluaren eginkizunak.*

Euskararen Aholku Kontseiluaren eginkizunak honako hauek dira:

1. Tolosako Udalari laguntzea euskarari buruzko plan estrategikoak diseinatzen eta garatzen.

2. Parte hartzea plan estrategikoa garatzeko urteko kudeaketa-planen diseinuan eta jarraipenean.

3. Oro har, Tolosako Udaleko Herritarrak Lan Esparruko Informazio Batzorde Iraunkorraren eskariari jarraituz, Tolosan euskararen erabilera normalizatzearekin lotutako gaiak aztertzea.

Egokitzat joz gero, Euskararen Aholku Kontseiluak erabaki dezake lantaldeak eratzea, helburu edo arlo zehatzei loturik, edo egoera zehatzak aztertzeko.

*4. artikulua. Euskararen Aholku Kontseiluko kideak.*

Ondorengo hauek izango dira Tolosako Udaleko Euskararen Aholku Kontseiluko kideak:

a) Euskara eta Hezkuntza Saila:

Lehendakaria:

— Euskara eta Euskaltegia Azpisaileko zinegotzi delegatua eta haren ordezkoa.

Idazkaria:

— Euskara eta Hezkuntza Saileko zerbitzuburua eta haren ordezkoa.

— Euskara eta Hezkuntza Saileko hizkuntza-normalkuntzako teknikaria eta haren ordezkoa.

Con estos objetivos, el Ayuntamiento de Tolosa ha renovado el reglamento que regula el Consejo Asesor del Euskera del Ayuntamiento de Tolosa en base a los principios de participación, simplificación y eficacia en la elaboración de una política lingüística común en Tolosa.

*Artículo 1. Constitución.*

El Ayuntamiento de Tolosa reconoce que los derechos lingüísticos son básicos y que, en consecuencia, los poderes públicos deben garantizarlos a toda la ciudadanía. Asimismo, considera que uno de los principios que debe cumplir la buena gobernanza es la participación ciudadana en la generación de políticas lingüísticas, así como en la planificación y evaluación de proyectos y programas. En este sentido, el Consejo Asesor del Euskera del Ayuntamiento de Tolosa pretende constituirse por la importancia estratégica que tiene la normalización lingüística para Tolosa.

*Artículo 2. Carácter del Consejo Asesor del Euskera.*

El Consejo Asesor del Euskera del Ayuntamiento de Tolosa es un órgano colegiado de carácter consultivo y deliberante, adscrito al Ayuntamiento de Tolosa a través de la Comisión Informativa Permanente del Área de Trabajo de Ciudadanía.

El Consejo es un órgano de relación en el que se darán cita representantes de grupos, asociaciones y entidades públicas y privadas que trabajan en Tolosa en la normalización lingüística.

La intervención del Consejo se expresará en el examen de los asuntos que le sean atribuidos. Las propuestas o alternativas que se formulen sobre estas materias no serán vinculantes para el Ayuntamiento. Si las propuestas o alternativas formuladas por el Consejo al Ayuntamiento no hubieran sido tenidas en cuenta en la aprobación definitiva, se responderá al Consejo con indicación de las causas que las motivan.

Todas las relaciones del Consejo con el Ayuntamiento se canalizarán a través de la Comisión Informativa Permanente del Área de Trabajo de Ciudadanía.

A fin de garantizar su correcto funcionamiento, el Consejo contará con la asistencia técnica del Departamento de Euskera y Educación.

*Artículo 3. Funciones del Consejo Asesor del Euskera.*

Son funciones del Consejo Asesor del Euskera:

1. Colaborar con el Ayuntamiento de Tolosa en el diseño y desarrollo de los planes estratégicos de euskera.

2. Participar en el diseño y seguimiento de los planes de gestión anuales para el desarrollo del plan estratégico.

3. En general, analizar los temas relacionados con la normalización del uso del euskera en Tolosa, siguiendo la solicitud de la Comisión Informativa Permanente del Área de Trabajo de Ciudadanía del Ayuntamiento de Tolosa.

Si se considera oportuno, el Consejo Asesor del Euskera podrá acordar la constitución de grupos de trabajo en relación con objetivos o áreas concretas o para analizar situaciones concretas.

*Artículo 4. Miembros del Consejo Asesor del Euskera.*

Serán miembros del Consejo Asesor del Euskera del Ayuntamiento de Tolosa:

a) Departamento de Euskera y Educación:

Presidencia:

— Concejal/a delegado/a de Euskera y Euskaltegi, y su suplente.

Secretaría:

— Jefe/a del Servicio de Euskera y Educación, y la persona en quien delegue.

— Técnico/a de normalización lingüística del Departamento de Euskera y Educación, y su suplente.

EK\CV GAO-I-2024-04043

— Aitzol Udal Euskaltegiko zuzendaria eta haren ordezkoa.

— Uema Udalerri Euskaldunen Mankomunitateko teknikaria eta haren ordezkoa.

b) Udal-taldeak: Tolosako Udalbatzan ordezkaritza duen talde bakoitzeko ordezkari bat, eta haien ordezkoak.

c) Udalerrian hizkuntza-normalizazioan diharduten taldeetako ordezkariak:

— Galtzaundi Euskara Taldeko ordezkari bat eta haren ordezkoa.

— Tolosaldeko Ataria hedabideko ordezkari bat eta haren ordezkoa.

— 28 Kanala hedabideko ordezkari bat eta haren ordezkoa.

— Samaniego Herri Ikastetxeko ordezkari bat eta haren ordezkoa.

— Orixe Institutuko ordezkari bat eta haren ordezkoa.

— Laskorain Ikastolako ordezkari bat eta haren ordezkoa.

— Herrikide Ikastetxeko ordezkari bat eta haren ordezkoa.

Udal-talde eta eragile bakoitzak bere ordezkaria eta haren ordezkoa izendatuko ditu, eta Kontseiluak karguen jabetza emango die, betiere ez badago inolako bateraezintasun- edo debeku-arrazoirik.

Kontuan hartuta zer dioen 1/2023 Legegintzako Dekretuak, martxoaren 16koak, emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko Legearen testu bategina onartzen duenak, neurri egokiak hartuko dira Kontseiluan emakumeek eta gizonek presentzia orekatua izan dezaten (sexu biek gutxienez % 40ko ordezkaritza). Presentzia orekatu hori bete dadin, Udalak sustatuko du elkarteetako edota erakundeetako zuzendaritza-organoetan presentzia orekatua izatea, besteak beste, dirulaguntzen oinarrietan neurriak sartuz, emakumeek presentzia txikia duten zuzendaritza-organoetan presentzia hori handitzea ahalbidetzeko.

Euskararen Aholku Kontseiluko kidea entitate baten ordezkari izanez gero, entitateak berak izendatuko du –ordezkoa ere bai–. Kide horiek entitate bakar baten izenean hartuko dute parte, eta pertsona batek ezin izango du, inolaz ere, entitate bat baino gehiago ordezkatu.

Aurreko paragrafoetan xedatutakoari aurka egin gabe, Kontseiluko kideek kontseilukide izateari utziko diote ondorengo kasuetan:

— Norbere borondatez, betiere idatziz adierazten badu.

— Erregelamendu honetan adierazitako funtzioak behin eta berriro ez betetzeak eragindako enkaitzeagatik edo kargugabetzeagatik.

— Ordezkatzen duen elkartea, taldea edo kolektiboa desagertzen bada.

— Elkartearen estatutuetan izendatu izanaren funtsezko aldaketarik gertatzen bada.

— Lehendakaritzaren kasuan, delegazioa aldatu edo uzteagatik.

— Ordezkatzen duen elkartea uzteagatik.

— Heriotzagatik.

Kontseilukide izateari uztea Kontseiluak berak berretsiko du, lehendakariaren proposamenari jarraikiz.

Nahiz eta Kontseiluko kide ez izan, bileretara joan ahal izango dira bestelako elkarteetako edo taldeetako ordezkariak, baita herritarrak ere. Horiek ez dira izango Kontseiluko eskubide osoko kideak, eta, beraz, ezin izango dute botoa eman eta ez dira aintzat hartuko quorumari dagokionez.

— Director/a del Euskaltegi Municipal Aitzol y su suplente.

— Técnico/a de la Mancomunidad de Municipios Euskaldunes Uema y su suplente.

b) Grupos municipales: un/una representante de cada grupo con representación en el Pleno del Ayuntamiento de Tolosa, y sus suplentes.

c) Representantes de los grupos que trabajan en la normalización lingüística del municipio:

— Un/una representante de Galtzaundi Euskara Taldea y su suplente.

— Un/una representante del medio Tolosaldeko Ataria y su suplente.

— Un/una representante del medio 28 Kanala y su suplente.

— Un/una representante del Colegio Público Samaniego y su suplente.

— Un/una representante del Instituto Orixe y su suplente.

— Un/una representante de la Ikastola Laskorain y su suplente.

— Un/una representante del Colegio Herrikide y su suplente.

Cada grupo municipal y agente designará a su representante y a su suplente, y el Consejo les dará posesión de sus cargos, siempre que no exista causa de incompatibilidad o prohibición alguna.

Teniendo en cuenta lo dispuesto en el Decreto Legislativo 1/2023, de 16 de marzo, por el que se aprueba el texto refundido de la Ley para la Igualdad de Mujeres y Hombres y para la Igualdad de Mujeres y Mujeres y Contra la Violencia Machista, se adoptarán las medidas oportunas para garantizar una presencia equilibrada de mujeres y hombres en el Consejo (representación de ambos sexos de al menos el 40 %). Para que esta presencia equilibrada se cumpla, el Ayuntamiento promoverá una presencia equilibrada en los órganos de dirección de las asociaciones y/o entidades, entre otras cosas, mediante la introducción de medidas en las bases de las subvenciones, que permitan incrementar esa presencia de las mujeres en los órganos directivos con escasa presencia.

En el caso de que el/la miembro del Consejo Asesor del Euskera sea representante de una entidad, será designada por la misma, incluyendo su suplente. Dichos/as miembros participarán en nombre de una sola entidad, sin que en ningún caso puedan representar a más de una entidad.

Sin perjuicio de lo dispuesto en los apartados anteriores, los/as miembros del Consejo perderán la condición de vocales en los siguientes supuestos:

— Voluntariamente, siempre que lo manifiesten por escrito.

— Por remoción o cese derivado del incumplimiento reiterado de las funciones señaladas en el presente Reglamento.

— Por desaparición de la asociación, grupo o colectivo al que representa.

— Modificación sustancial del nombramiento en los estatutos de la asociación.

— En el caso de la Presidencia, por cambio o cese de delegación.

— Por abandonar la asociación a la que representa.

— Por fallecimiento.

La pérdida de la condición de miembro del Consejo será ratificada por el propio Consejo a propuesta de la Presidencia.

Podrán asistir a las reuniones, aunque no sean miembros del Consejo, representantes de otras asociaciones o grupos, así como ciudadanos/as. Estos no serán miembros de pleno derecho del Consejo, por lo que no podrán votar ni ser tenidos en cuenta a efectos de quórum.

EK\CV GAO-I-2024-04043

*5. artikulua. Kontseilukideen egitekoak.*

1. Kontseiluaren lehendakariak honako funtzio hauek ditu:

— Kontseiluaren ordezkari izatea.

— Udal-teknikariak, eta erakundeen eta elkarteen ordezkariak gonbidatzea.

— Gai-zerrenda onartzea.

— Bileran buru egitea, eta bileren garapena moderatzea.

— Herritarren parte-hartzea bermatzea.

— Kontseilukide izateari uzteko proposamenak egitea.

— Entitate, elkarte edo herritarrek gonbidatu gisa parte hartzeko egiten dituzten eskaerak onartzea edo baztertzea, Kontseiluak emandako iritziaren arabera, eta gonbidapena bidaltzea.

— Kontseiluaren ekimenak eta proposamenak helaraztea Herritarrak Lan Esparruko Informazio Batzorde Iraunkorrari edo, hala badagokio, Udalbatzari, horiek bidera ditzaten.

— Kontseiluaren aktei eta hartutako erabakien ziurtagiriei oniritzia ematea.

— Lehendakari izateagatik dagokion beste edozein eginkizun betetzea.

2. Kontseiluaren idazkariak honako funtzio hauek ditu:

— Kontseiluko bileretara joatea.

— Bileretako aktak egitea.

— Akta guztiak Euskara eta Hezkuntza Sailean gordetzea eta Kontseiluko kideen esku jartzea.

— Bileretarako deialdiak bidaltzea, gai-zerrendarekin eta azken bilerako aktarekin batera.

— Kontseiluak hartutako erabakiak bideratzea.

— Kontseilukideen alta- eta baja-eskaerak jasotzea eta tramitatzea, baita dagokion erregistroa kudeatzea ere.

— Artxibo- eta erregistro-eginkizunak betetzea.

— Idazkari izateagatik dagokion beste edozein eginkizun betetzea.

3. Euskara eta Hezkuntza Saileko zerbitzuburuak, hizkuntz normalizazioko teknikariak eta Aitzol Udal Euskaltegiko zuzendariak honako funtzio hauek dituzte:

— Aholku ematea dagokion arloari buruzko alderdi teknikoei buruz.

— Lehendakariari proposatzea Kontseilurako gai-zerrendarako gaiak.

*6. artikulua. Kontseilukideen eskubideak eta betebeharrak.*

Honako eskubide hauek dauzkate Euskararen Aholku Kontseiluko kideek:

— Kontseiluaren bileretako eztabaidetan parte hartzea.

— Gai-zerrendan jasota ez dagoen gairen bat proposatzea. Horrelakoetan, Kontseiluak gehiengo soilez hartuko du gaia eztabaidatzeko erabakia.

— Hizkuntza-politikari buruzko proposamenak planteatzea.

— Kontseiluak hartutako erabakiak betetzeko garatzen diren ekintzei buruzko informazioa jasotzea.

— Kontseiluaren aktak eta dokumentazio guztia eskuratu ahal izatea.

— Erregelamendu honek nahiz indarrean dagoen legediak ezar dakizkiekeen beste eskubide guztiak.

Honako betebehar hauek dauzkate Euskararen Aholku Kontseiluko kideek:

— Kontseiluaren bileretan eta kide diren lantaldeen bileretan parte hartzea.

*Artículo 5. Funciones de los/as miembros del Consejo.*

1. Son funciones del/la presidente/a del Consejo:

— Representar al Consejo.

— Invitar a técnicos/as municipales y representantes de entidades y asociaciones.

— Aprobar el orden del día.

— Presidir la reunión y moderar el desarrollo de las mismas.

— Garantizar la participación ciudadana.

— Proponer la pérdida de la condición de miembro del Consejo.

— Aceptar o rechazar las solicitudes de participación de entidades, asociaciones o ciudadanos/as como invitados/as, de acuerdo con la opinión del Consejo y enviar la invitación.

— Trasladar las iniciativas y propuestas del Consejo a la Comisión Informativa Permanente del Área de Trabajo de Ciudadanía o, en su caso, al Pleno, para su tramitación.

— Visar las actas del Consejo y las certificaciones de los acuerdos adoptados.

— Ejercer cualquier otra función que le corresponda por su condición de presidente/a.

2. Son funciones del/la Secretario/a del Consejo:

— Asistir a las reuniones del Consejo.

— Levantar las actas de las reuniones.

— Mantener todas las actas en el Departamento de Euskera y Educación y ponerlas a disposición de los miembros del Consejo.

— Enviar las convocatorias de las reuniones, junto con el orden del día y el acta de la última reunión.

— Canalizar los acuerdos adoptados por el Consejo.

— Recibir y tramitar las solicitudes de alta y baja de los miembros del Consejo, así como gestionar el registro correspondiente.

— Funciones de archivo y registro.

— Ejercer cualesquiera otras funciones inherentes a su condición de Secretario/a.

3. Son funciones del/la Jefe/a de Servicio del Departamento de Euskera y Educación, del/la Técnico/a de Normalización Lingüística y del/la Director/a del Euskaltegi Municipal Aitzol:

— Asesorar en aspectos técnicos relacionados con su área.

— Proponer a la Presidencia los asuntos del orden del día del Consejo.

*Artículo 6. Derechos y deberes de los/as miembros del Consejo.*

Los/as miembros del Consejo Asesor del Euskera tienen los siguientes derechos:

— Participar en los debates de las reuniones del Consejo.

— Proponer un asunto no incluido en el orden del día. En estos casos, el Consejo decidirá por mayoría simple tratar el tema.

— Plantear propuestas sobre política lingüística.

— Recibir información sobre las acciones que se desarrollan en ejecución de los acuerdos adoptados por el Consejo.

— Acceder a las actas y documentación del Consejo.

— Cualesquiera otros derechos que le sean de aplicación por el presente Reglamento o la legislación vigente.

Los/as miembros del Consejo Asesor del Euskera tienen las siguientes obligaciones:

— Participar en las reuniones del Consejo y de los grupos de trabajo donde participan.

EK\CV GAO-I-2024-04043

— Kontseiluak hartutako erabakiak betetzeko sustatzen diren ekintzetan laguntza ematea.

— Erregelamendu honetan xedatutakoa errespetatu eta betetzea.

— Elkarte, talde edo kolektiboen kasuan, Udalari jakinaraztea beren estatutuak aldatuz gero, aldaketa horiek izendapenetan eraginik baduten aztertzeko.

— Entitatearen ordezkaria edo helbide soziala aldatuz gero, horren berri jakinaraztea.

— Erregelamendu honek eta indarrean dagoen legediak ezar dakizkiekeen beste betebehar guztiak.

*7. artikulua. Kontseiluaren egitura.*

1. Kontseilukide guztiek osatuko dute Euskararen Aholku Kontseiluaren batzarra.

2. Honako kide hauek osatuko dute Euskararen Aholku Kontseiluaren Batzorde Iraunkorra:

— Euskara eta Hezkuntza Saileko zinegotzi delegatuak eta haren ordezkoak (lehendakaria).

— Euskara eta Hezkuntza Saileko zerbitzuburuak eta haren ordezkoak (idazkaria).

— Euskara eta Hezkuntza Saileko hizkuntz normalizazioko teknikariak eta haren ordezkoak.

— Uema Udalerri Euskaldunen Mankomunitateko teknikariak eta haren ordezkoak.

— Tolosako Udalbatzan ordezkaritza duten talde bakoitzeko ordezkari banak eta haien ordezkoek.

— Galtzaundi Euskara Taldeko ordezkariak eta haren ordezkoak.

Kontuan hartuta zer dioen 1/2023 Legegintzako Dekretuak, martxoaren 16koak, emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko Legearen testu bategina onartzen duenak, neurri egokiak hartuko dira Batzorde Iraunkorrean emakumeek eta gizonek presentzia orekatua izan dezaten (sexu biek gutxienez % 40ko ordezkaritza). Presentzia orekatu hori bete dadin, Udalak sustatuko du elkarteetako edota erakundeetako zuzendaritza-organoetan presentzia orekatua izatea, besteak beste, dirulaguntzen oinarrietan neurriak sartuz, emakumeek presentzia txikia duten zuzendaritza-organoetan presentzia hori handitzea ahalbidetzeko.

Ez dira inola ere kide gisa onartuko sexuaren ziozko bereizkeria eragiten duten elkarte edo erakundeak, eta emakumeek gizonekiko berdintasunean parte hartzea onartzen ez duten edo oztopatzen duten jarduerak antolatzen dituzten elkarteak. Era berean, ezingo dute parte hartu sexuaren ziozko bereizkeria dela-eta administrazio-zehapena edo zigor penala jaso duten pertsona fisikoek edo juridikoek, dena delako zehapenak edo zigorrak dirauen denboran.

*8. artikulua. Bileren aldizkakotasuna.*

1. Euskararen Aholku Kontseiluak urtean bi aldiz egingo du batzarra: bat, urte amaieran, urteko kudeaketa-planaren deskargua jasotzeko eta hurrengo urteko kudeaketa-plana onesteko; bestea, uda hasieran, urteko jarraipena egiteko. Bilkura horiek publikoak izango dira, eta Udalak aldez aurretik emango du deialdiaren berri, edozein eragile edo herritarrek aukera izan dezan joateko. Horiek ez dute boto-eskubiderik izango.

2. Euskararen Aholku Kontseiluaren Batzorde Iraunkorra hilean behin bilduko da, urteko kudeaketa-planean aurreikusitako jarduerak planifikatzeko eta haien jarraipena egiteko.

3. Lehendakariak beharrezkotzat joz gero, ohiz kanpoko bilerak egin ahal izango ditu Euskararen Aholku Kontseiluaren batzarrak, baita Batzorde Iraunkorrak ere.

— Colaborar en las acciones que se promuevan para la ejecución de los acuerdos adoptados por el Consejo.

— Respetar y cumplir lo dispuesto en el presente Reglamento.

— En el caso de asociaciones, grupos o colectivos, comunicar al Ayuntamiento la modificación de sus estatutos para comprobar si dichas modificaciones afectan a los nombramientos.

— Comunicar cualquier cambio de representante o domicilio social de la entidad.

— Cualesquiera otras que le sean de aplicación el presente Reglamento y la legislación vigente.

*Artículo 7. Estructura del Consejo.*

1. El Consejo Asesor del Euskera estará compuesto por todos/as los/as miembros del Consejo.

2. La Comisión Permanente del Consejo Asesor del Euskera estará integrada por los/as siguientes miembros:

— El/la Concejal/a Delegado/a del Área de Euskera y Educación y su suplente (Presidencia).

— El/la Jefe/a de Servicio de Euskera y Educación y su suplente (Secretaría).

— Técnico/a de normalización lingüística del Departamento de Euskera y Educación y su suplente.

— Técnico/a de la Mancomunidad de Municipios Euskaldunes (Uema) y su suplente.

— Un/una representante de cada grupo con representación en el Pleno del Ayuntamiento Tolosa y sus suplentes.

— Un/una representante de Galtzaundi Euskara Taldea y su suplente.

Teniendo en cuenta lo dispuesto en el Decreto Legislativo 1/2023, de 16 de marzo, por el que se aprueba el texto refundido de la Ley para la Igualdad de Mujeres y Hombres y para la Igualdad de Mujeres y Mujeres y Contra la Violencia Machista, se adoptarán las medidas oportunas para garantizar una presencia equilibrada de mujeres y hombres en la Comisión Permanente, con una representación mínima del 40 % de ambos sexos. Para que esta presencia equilibrada se cumpla, el Ayuntamiento promoverá una presencia equilibrada en los órganos de dirección de las asociaciones y/o entidades, entre otras cosas, mediante la introducción de medidas en las bases de las subvenciones, que permitan incrementar esa presencia de las mujeres en los órganos directivos con escasa presencia.

En ningún caso se admitirá como miembro a asociaciones o entidades que discriminen por razón de sexo y a asociaciones que organicen actividades que no admitan o dificulten la participación de las mujeres en igualdad de condiciones con los hombres. Tampoco podrán participar las personas físicas o jurídicas sancionadas administrativa o penalmente por incurrir en discriminación por razón de sexo durante el tiempo que dure la sanción o condena.

*Artículo 8. Periodicidad de las reuniones.*

1. El Consejo Asesor del Euskera realizará dos reuniones al año: una, a final de año, para recoger el descargo del plan de gestión anual y aprobar el plan de gestión del año siguiente; otra, a principios de verano, para realizar el seguimiento anual. Estas sesiones serán públicas y el Ayuntamiento informará previamente de la convocatoria para que cualquier agente o ciudadano/a pueda acudir. Estos/as no tendrán derecho a voto.

2. La Comisión Permanente del Consejo Asesor del Euskera se reunirá una vez al mes para planificar y realizar el seguimiento de las actuaciones previstas en el plan de gestión anual.

3. Si la Presidencia lo considera necesario, tanto el Consejo Asesor del Euskera como la Comisión Permanente podrán celebrar sesiones extraordinarias.

EK\CV GAO-I-2024-04043

4. Eskubide osoko kideen erdiek eskubidea izango dute ohiz kanpoko bilera eskatzeko. Halakoetan, gehienez ere hamabost eguneko epean gauzatuko dira bilera horiek. Deialdia gutxienez zazpi egun natural lehenago egin beharko da.

*9. artikulua. Kontseilua eratzea.*

1. Euskararen Aholku Kontseiluaren batzarra eratutzat joko da kontseilukideen erdiak eta bat gehiago bertaratu direnean. Nolanahi ere, eraketak balioa izan dezan, beharrezkoa izango da lehendakaria eta idazkaria bertan egotea.

2. Batzorde Iraunkorra eratutzat joko da kideen erdiak eta bat gehiago bertaratu direnean. Nolanahi ere, eraketak balioa izan dezan, beharrezkoa izango da lehendakaria eta idazkaria bertan egotea.

*10. artikulua. Boto-eskubidea.*

Kontseilukide guztiek dute boto-eskubidea, Tolosako Udaleko eta Uemako langileek izan ezik, baina proposamenak onartzeko adostasuna sustatuko da.

Proposamenak egiten direnean adostasuna lortzerik ez badago, eskubidea duen bakoitzak bere botoa emango du, eta hala jasota geratuko da aktan. Erabakiak gehiengo soilaz hartuko dira. Bozketan berdinketarik izanez gero, berriro bozkatuko da, eta, hala ere berdinketarik egongo balitz, lehendakariaren bozak bi halako balioko du.

Erregelamendu honetan jaso ez diren gai guztietarako bete beharko da udal-organoen araudian eta toki-erregimeneko araudiak kide anitzeko organoen inguruan ezarritakoa.

*Xedapen indargabetzailea.*

Baliorik gabe geratzen da Tolosako Udalbatzak 2021eko urtarrilaren 28an onartutako Tolosako Udaleko Euskararen Aholku Kontseilua arautzeko erregelamendua, baita Erregelamendu honen maila berekoak edo txikiagoak izanik, Erregelamendu honetan xedatuarekin bat ez datozen erabaki guztiak.

4. La mitad de los/as miembros de pleno derecho tendrán derecho a solicitar una reunión extraordinaria. En este caso, dichas reuniones se celebrarán en el plazo máximo de quince días. La convocatoria deberá realizarse con una antelación mínima de siete días naturales.

*Artículo 9. Constitución del Consejo.*

1. Se entenderá constituida la Asamblea del Consejo Asesor del Euskera cuando concurran a ella la mitad más uno de sus miembros. En todo caso, la válida constitución requerirá la presencia del/la presidente/a y del/la Secretario/a.

2. Se entenderá constituida la Comisión Permanente cuando concurran a ella la mitad más uno de sus miembros. En todo caso, la válida constitución requerirá la presencia del/la presidente/a y del/la Secretario/a.

*Artículo 10. Derecho a voto.*

Todos/as los/as miembros del Consejo tienen derecho a voto, excepto el personal del Ayuntamiento de Tolosa y de Uema, si bien se promoverá el acuerdo de aprobación de las propuestas.

En el supuesto de que las proposiciones no pudiesen llegar a un acuerdo, cada persona con derecho emitirá su voto, que quedará reflejado en el acta. Los acuerdos se adoptarán por mayoría simple. En caso de empate en la votación, se volverá a votar y, en caso de empate, el voto del/la Presidente/a valdrá el doble.

En todo lo no previsto en el presente Reglamento se estará a lo dispuesto en el reglamento de órganos municipales y en la normativa de régimen local sobre órganos colegiados.

*Disposición derogatoria.*

Queda derogado el Reglamento regulador del Consejo Asesor del Euskera del Ayuntamiento de Tolosa, aprobado por el Pleno del Ayuntamiento de Tolosa el 28 de enero de 2021, así como cuantas disposiciones de igual o inferior rango se opongan a lo dispuesto en el presente Reglamento.

EK\CV GAO-I-2024-04043